

MUNDUKIDE
02 KOADERNOA:

NEKAZARITZA JASANGARRIA MOZAMBIKEN

Mundukide GGKEak Niassa eta Cabo Delgado probintzietan 10 urte baino gehiagoz egin dituen garapenerako lankidetzako proiektuei esker, **landa ingurune**ko herritarren diru-sarrerak modu **jasangarri eta orekatuan** handitzea lortzera bideratutako lan estrategiak finkatu ahal izan dira.

Populazioaren % 85 **familiarteko nekazaritzaz** bizi den ingurune honetan, nekazaritzako lanaren errendimendua areagotzen duten labore eta teknikak txertatu dira, eta nekazaritza jasangarria egin dezakete merkatuan eskaera duten eta nutrizio balio handikoak diren laboreak produzituta.

Jakintzaren transferentziaren bitartez, nekazarien familiei prestakuntza ematea izan da estrategia garrantzitsuenetako bat, eta ureztatze azpiegiturak ere eraiki dira.

NEKAZARIZ NEKAZARI

“Nekazariz nekazari” metodologian, nekazaritzaren arloan aurreratuagoak dauden inguruneetako nekazari familiek **jakintza eta esperientziak transferitzen** dizkiete Niassa eta Cabo Delgado probintzietako barrualdeko

barrutietako familiei. Horretarako, **nekazarien elkarte**en laguntza behar da; izan ere, hainbat kide bidaltzeko prest egon behar dute, beste nekazarien irakasle izan daitezten.

Estrategia horren barruan, tokian tokiko nekazaritzaren, ingurumenaren eta gizartearen baldintzetarako egokiak diren **teknikak eta laboreak alde aurretik hautatu** behar dira; horretaz gain, lana/errendimendua erlazio ona duten produktuak izan behar dute, eta merkatuan ere ongi saltzeko modukoak.

Irakaslea prestakuntza jaso behar dutenen herrixkara joaten da. Hainbat hilabetez egoten da bertan, teknika berriak irakasten eta teknika horiek zuzenean beren sorrotan praktikan jartzen dituztenean laguntza teknikoa ematen.



Nekazaritzako tekniken gaineko prestakuntza praktikoa

Teknologia transferitzeko prozesu horrek alde on garrantzitsuak ditu: antzeko baldintzetan jada egiaztatuta dauden teknika egokiak transmititzen dira, hizkuntza berean komunikatzea erraza da, irakasleak gertukoak eta sinesgarriak dira, haiek ere nekazari direnez. Prestakuntza mota horretan, indibidualizatua izaki, prestakuntza jaso behar dutenek ez dute inora joan beharrik eta ordutegiak euren arabera molda daitezke; eta horri esker, **emakumeek ere parte har dezakete**.

Hartara, Niassa eta Cabo Delgado probintzietako barrutietan **ohikoak ez diren laboreak** txertatu dituzte, hala nola sesamoa, boer babarruna eta holoco babarruna lehorreko soroetan, eta tipula, tomatea, uraza eta azak ureztatze sistema duten soroetan. Lekaleek proteina balio handia dute, eta barazkiekin bitaminak eta mineralak sartzen dira dietan. Berez, leguminosoen onurak ez dira soilik elikadurari dagozkionak; izan ere, leguminosok landatzen direnean lurra nitrogenoa hartzen baitu (eta, hartara, ez da lugorri utzi beharrik urte gutxiren buruan) eta, gainera, azken urteotan merkataritzan eskaera handia duen produktua da.

Nekazaritza berritzeko jardunbideak ere txertatu dira; esate baterako, mintegietan ernamuinak produzitzen

dituzte eta gero aldatu, lerroan ereiten dute, txertaketak egiten dituzte, izurri eta gaixotasunak kontrolatzeko teknikak aplikatzen dituzte, zerealen uztak eta kontserbazioa egiten dute eta abar. Beste berrikuntza bat da fruta arbolak landatzen dituztela lursailetan, etekin ekonomiko handi samarra ematen dutelako esfortzu fisiko txikia eginda.

Bestalde, **tokiko produktoreen elkarteak** funtsezko eragile dira nekazaritzako jarduera errentagarriagoa izan dadin, eta produktuak garraiatu, biltegitatu eta saltzeko logistika hobetzeko. Elkarteek laguntza jaso dute eskura dituzten baliabideak hobeto baliatu ditzaten. Banaketa sistema bat ezarri da ikasitako teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren tresnen, ekipamenduen edo sargaien (kalitatezko haziak, ongariak eta abar) kostua merketze aldera. Familiek herrixka batean pilatzen dute uzta, eta kamioi bat alokatzen dute produktu guztiak hirira eramateko eta herrixketan baino prezio handiagoan saldu ahal izateko (% 6 inguru garestiago).

Azken batean, herritarrek bizitzeko adina baliabide lor ditzakete ingurumenarekin jasangarriak diren teknikak erabilita; teknika horiek, gainera, produkzioaren emaitzak hobetzen dituzte eta,aldi berean, nekazaritzako eremuetako ingurumena harriatzeko prozesua geldiarazten dute.



UREZTATZEKO SISTEMAK ERAIKITZEA

Mikroureztaketa sistemak ezarri direnez, merkatuan balio handia duten produktuak landatu ahal izan dira, etengabe, **lursail txikietan**, nekazaritza oso estentsiboa egin behar izan gabe. Sistema horietan, dike txikiak egiten dituzte material arruntekin (harria, egurra eta abar) eta ura banatzeko motoponpa txikiak jartzen dituzte.

Eskala txikiko ureztatzea da jasangarritasunaren eta errentagarritasunaren erronkei erantzuteko aukerarik egokiena, familiarteko nekazaritza nagusi den eremu horietan, hainbat arrazoiengatik:

- Nekazariak **4 hilabetetik 8 hilabetera luza dezakete produkzioaldia ureztatutako eremuetan**; ureztatzerik gabeko eremuetan, aldiz, produkzioaldia 4 hilabete izaten da (abendutik martxora bitarte), betiere lurren emankortasuna agortzea saihestuta.
- Ureztatutako barazkien kasuan, **hektarea bakoitzeko errendimendua** askoz handiagoa da zerealekin baino eta, beraz, etekin ekonomiko handiagoa lortzen dute azalera txikiagoa landatuta.
- **Kalteberatasun txikiagoa klimaren eta euriaren eraginez**. Ureztatzeak euriarekiko mendetasuna murrizten du eta, beraz, nekazari familiek sargai hobeak erosteko eta tratamenduak egiteko inbertsioak egin ditzake, arrisku txikiagoarekin, bai baitakite inbertsioa ez dela zapuztuko euririk ez duelako egiten.



- Tokiko herritarrek ureztatu daitezkeen lurrak produktiorako baliatzen dituztenez, nekazaritzako enpresa handiak bertan sartu eta lur horiek okupatu, kostu txikian ustiatu eta lanpostu prekarioak sortzeko arriskua murriztu egiten da.



Produktibitatea areagotu da, lurzorua emankortasuna agortu gabe

Diru-sarreraren gorakada eragin handia izaten ari da familien bizi baldintzetan. **Haurren desnutrizio akutua % 43 murriztu da 2006. urtetik 2013. urtera bitarte**, herritarrek diru-sarrera gehiago dituzte orain, eta bestelako elikagaiak erosteko (olioa, arroza eta abar) erabil dezakete diru hori, bizigarritasun baldintzak hobetzeko, komunikazioak hobetzeko eta osasunarekin nahiz heziketarekin lotutako gastuak (garraioa eta ikas-materiala) ordaintzeko.

EMAKUMEEN AHALDUNTZE EKONOMIKOA

Programari esker, emakumeek modu aktiboagoan parte hartzen dute nekazaritzan; hori lortzeko, **genero berdintasunaren gaineko sentsibilizazio lana** egin dute herrixketan, eta nekazaritzako ekintzailtzako proiektuei haziak eta ureztatzeko sistemak emateko garaian, emakumeak buru diren proiektuak lehenetsi dira.

Laboreak eta teknikak hautatzeko garaian, **emakumeen berriazko egoerak** hartu dira kontuan; izan ere, emakume gehienak lehen aldiz hasi dira etekin ekonomikoak administratzen. Ildo horretan, labore eta teknika berriek ez dute eskatzen hasieran inbertsio handia egiterik, eta labore gehienak biltegiratu eta



Tokiko merkatuan labore aukera handiagoa dago orain

pixkanaka-pixkanaka saltzeko modukoak dira, lortutako diru-sarrerak hobeto kudeatu ahal izateko, hartara. Horretaz gain, emakumeen topaketetan zalantzak eta zailtasunak argitzeko aukera izateaz gain, esperientziak elkartrukatu ere egin dituzte, gomendioak emanez elkarri eta beren autokonfiantza indartzeko.

Nekazaritzako produkzioko proiektu horien bitartez, emakumeek **elikadura eta osasuna hobetu ahal izan dituzte, gaitasunak indartu eta autonomia ekonomikoa areagotu**; eta horrek guztiak ahalduntzen eta euren eskubide ekonomiko eta sozialak baliatzen lagundu die.

Horri guztiari esker, pertsonak beren egoera hobetzeko benetako gaitasuna izatea lortu da, hau da, bizimodu duina izateko beharrezkoa dena produzitu ahal izateko jakintzak, ohiturak, tresnak, bitartekoak eta testuingurua eskura izatea.

Lortutako emaitzak nabarmentzeko modukoak dira, zifratan: **2018an, 229 lagunek jardun dute irakasle lanetan** (horietatik 28 emakumeak izan dira); **guztira, 12.155 nekazarik** (% 28 emakumeak) jaso dute prestakuntza, **eta ureztatzeko sistemak ezarri dira 618 hektareatan**.



Emakumeen ahalduntze ekonomikoari esker, eskubideak baliatzeko aukera handiagoa dute



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Proiektuarekin izandako lorpenak Nazio Batuen Agenda 2030eko Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) betetzeko lagungarri zenbateraino izan diren aztertuz gero, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

1. GIH eta 2. GIH: labore berriak eta nekazaritzako teknika berriak direla eta, nekazaritzako produkzioa handiagoa eta askotarikoagoa da eta, beraz, familiek dieta osasungarriagoa eta nutritiboagoa izan dezakete eta etekin ekonomiko handiagoak lor ditzakete.

5. GIH eta 10. GIH: emakume nekazarien jakintzak eta gaitasunak indartzeari eta nekazaritzako produkzioa hobetzeko teknikak txertatu izanari esker, emakumeen ahalduzko ekonomiko eta sozialean aurrera egin ahal izan da. Horretaz gain, genero arrakala ez ezik, landa inguruneetako eta hiriko herritarren arteko desorekak ere murriztu dira.

8. GIH eta 9. GIH: ureztatzeko azpiegiturak eta nekazaritzako teknika eta tresnak erabiltzen hastearen ondorioz, errendimendu ekonomiko eta nekazarien lan baldintzak hobetu egin dira. Esfotzu fisiko txikiagoa eginda, produktibitate handiagoa lortzen da.

12. GIH eta 13. GIH: nekazaritzako produkzioan jardunbide jasangarriagoak aplikatzen dituzte orain, hala nola ureztatzeko eraginkorra eta laboreen dibertsifikazioa; hartara, lurzorua ez da narriatzen eta ez du emankortasuna galtzen, eta herritarren erresiliencia hobetzen da, hau da, klima aldaketari aurre egiteko duten gaitasuna.

15. GIH: nekazaritzako produktibitatea hobetzearen ondorioz, laborantzarako eremu berriak irekitzeko premia murriztu da eta basoguneetan deforestazioa saihestu da, lurreko ekosistemak kontserbatzeko lagungarri izanik.



Herritarren ongizatea eta osasuna nabarmen hobetu dira

*“Pobreziaaren aurkako borrokan ingurumenaren, uraren eta saneamenduaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko” (GFA 2018 ERAL 012/01) proiektuaren hezkuntza materiala. ICLI GGKEk eta Zabalketa Elkarteak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.*

Egileak: Mundukide eta Asociación Zabalketa

Argazkiak: Mundukide

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina
D.L. SS-691-2019

Mundukide, ICLI eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz:

www.mundukide.org www.icli.info

www.zabalketa.org

